

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 513/2019 Erabakia, abuztuaren 2koa. Onestea María Elena Ferreira Sebastián andreak Komunikazio zuzendari postua uztea

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 6ko 357/2015 Erabakiaren bidez, María Elena Ferreira Sebastián Komunikazio zuzendari izendatu zen.

Diputatu Nagusiaren Sailaren egitura berrian, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan onartu duen foru dekretu baten bidez, Komunikazio zuzendaritzari izena aldatu zaio eta izen berria Kabinetearen eta Komunikazioaren Zuzendaritza da, egokiagoa baita bere eskumeneko jardute arloa adierazteko.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Horregatik, Diputatu nagusiak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. - María Elena Ferreira Sebastián Komunikazio zuzendari kargutik kentzea Foru Administrazioiko beste kargu batean aritzeko, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko abuztuaren 6tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE